

BERRIGARA

25. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, martxoak 1

Zorionak bisiestoei!!



Otsailak 29

MUNIOLA

GASOLINDEGIA


OSINTXU (BERGARA) ☎ 76 29 61



Estatu espainola astindu dezakeen boto bakarra



KANPORA!



esan iezaiezu Euskal Herriak independentea izateko eskubidea duela



independencia

Martxoaren hirua da aurtengoan

bozketarako eguna:

intsumisioak animatzea

bada egin nahi duzuna,

helburu gisa baldin baduzu

presoen askatasuna,

independentzia bada zuretzat

Euskadin behar duguna

egun horretan gogoz botatu

ezazu **HERRI BATASUNA**

*hautestontziak
indepentzia
leporarino*



bozkatu HERRI BATASUNA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxes: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkorobereibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


KEPA RAMOS

Txapa Irratiko kidea

- **Nolakoa da atzo aurkeztu zenuten programazio berria?**

- Emisio ordu gutxia izango dira, 25 ordu astean baina kalitateak gora egingo du, jendeak ikus dezan Txapa bizirik dagoela. Programak asteazken, ostegun, larunbat eta igandeetan izango dira eta nobedade moduan, kultura eta musika programez aparte, Txapa Kolektiboarena eta iritziz saioak izango dira. Bestalde, kolektiboaren eraberritze prozesuan Gazte Asanblada, Komite Internazionalistak, HIES Eki-mena eta zenbait gazte kolektiborekin bildu gara eurekin elkarlanean aritzeko asmoz.

- **Zenbat lagun ari zarete Txaparen inguruan?**



- 20 bat. Zapatuetan biltzen gara, 12etan Kultur Etxean. Parte hartzeko interesa duenak bertara etorri besterik ez dauka. Martxoko programazioa proba bat besterik ez da, apirilean hobe izatea espero dugu. Eta gogoratu Txaparen frekuentzia FMko 97.0 dela eta telefono zenbakia, berriz, 76 05 41.

"Emisio ordu gutxiago izango dira, baina kalitateak gora egitea espero dugu"

I T U R R I O N E T I K

Goiko Estazioko Zentral elektrikoko sarrerak itxi egingo dira

Goiko Estazioko Zentral elektrikoko sarrerak itxi egingo ditu Udalak, Bulego Teknikoak egindako azterketan oso egoera txarrean dagoela ikusi baita. Bertan, neska-mutikoak jolasean ibiltzen direnez, istripuren bat gertatu aurretik, Udalak leihoak eta atearak ixteko erabakia hartu du. Berrigarak jakin izan duenez, Udalak oraindik ez du edifizioa botatzeko aurrerapausua eman nahi. Aspaldi bertan jatetxe bat jartzeko proposamena jaso zuen baina momentuz proiektu hori geldirik dago. Gogoratuko duzuen Gazte Asanbladak okupatu egin zuen iaz edifizioa.

E S A N
D U T E

"Nik amodioaz dakidanarekin gutun-hori ez beste ezer gehiago ezin da egin. Baina sari honek baieztatzen du gauza bati buruz ez jakinda ere, batzutan itxurazko gauzak egin daitezkeela. Amodioari buruz hitzegiteko maiteminduta, maitemindu gabe, maitemintzeaz hitzik ez entzunda ere idatzi daiteke. Ezagutu gabe ere denok sentitzen dugun gaia da amodioa, beraz, ez da zaila hortaz idaztea"

IMANOL SORONDO

"Amodiozko Gutunen IV. Berrigara Lehiaketa"ko irabazlea
DEIA IGANDEA

"Nik gustura jokutzen dut binaka, gutxiago sufritzen delako. Buruz buru ere gustura aritzen naiz, disfrutatzen dut, baina uste dut binaka askoz hobeto sentitzen naizela"

ARITZ BERRAONDO

Oskarbiko pelotaria
EGUNKARIA

**SMOKE**

Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**VIRTUOSITY**

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30.

**ENTRE ROJAS**

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Paul Auster** idazleak idatzi eta **Wayne Wangek** (*El club de la buena estrella*) zuzendutako filme honek kritika eta publikoaren oniritzia jaso du. New Yorkeko Brooklyn auzoan kokatuta, bertako bizilagunen ikuspegi bitxia ematen zaigu. Tabako denda baten jabeak (**Harvey Keitel**) leku eta ordu berean argazki bat ateratzen du egunero eta bertara pertsonaia oso bereziak hurbilduko dira... **William Hurtekin**.

▼▼ **Denzel Washington** aktore ezagunak (*Malcolm X, Philadelphia*) protagonizatutako filmea. Errealitate birtuala egia bihurtzen denean hilketak ugalduta egingo dira eta horren aurrean **Parker Barnes** polizia ohiak (**Denzel Washington**) eta **Madison** doktoreak (**Kelly Lynch**) gogor egin beharko dute lan.

▼▼ **Azucena Rodríguez**ek zuzendutako filme honetan, **Penélope Cruz**, **Cristina Marcos**, **María Pujalte** edota **Ana Torrent** aktoreak dira erreparto buruan. Transizioaren aurreko urteetan girotuta, **Yeserías** emakumeen kartzelako gora beherak azaltzen zaizkigu. Emakumeen artean erlazio berezia piztuko da.

Deiak

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, martxoak 6, 18.30etan Seminarioan.

▼ **Matinala**. "Un regalo para papá" filmea igandean 11.30etan Novedades aretoan.

▼ **Bertso afaria** bihar larunbata, martxoak 2, Osintxuko Txuriringo jatetxean. Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak eta Jo eta Su trikitilariak. Izen-ematea, 2.500 pezeta.

▼ **Memín**. Larunbatean Inigo Martínez "Memín" zenaren omenez Irukurutzetara mendi irteera antolatuta dute bere lagun eta senitatekoek. Irteera 8etan Plazatik. Bidean hamarretakoa egingo da eta eguerdian bazkaria.

Ogia

▼ **Igandea 3:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 1:** Puy.
- ▼ **Larunbata 2:** Guallar.
- ▼ **Igandea 3:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 4:** Estella.
- ▼ **Asteartea 5:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 6:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 7:** Puy.

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

BERGARA Karrozeriak Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Miniaturen artea


José Tejadaren eskulan erakusketa Kultur Etxean

José Tejadaren eskulan erakusketa zabaldu zen asteartean Kultur Etxean. Marinaledakoa (Sevilla) jaiotzez, Tejadak (64 urte) 34 bat urte daramatza Bergaran bizitzen.

Erakusketan txiki-txikitik landutako hainbat pieza jarri ditu ikusgai. "8 edo 9 urterekin hasi nintzen eskulanak egiten, orduan labana eta egurra besterik ez nituen erabiltzen. Orain, berriz, tresna hobeak ditut: taldroa, zerra eta horrelakoak. Lehenbizi pieza bakoitzaren marrazkia egiten dut eta jarraian lanean hasten naiz. Zenbat ordu? Orain jubilaturita nagoenez, denbora gehiago daukat eta bataz beste egunean 6 bat ordu egiten ditut, goizetan batez ere".

200 bat pieza guztira

Kultur Etxean Tejadak egindako lanaren zati bat besterik ez da ikusiko. Egurra eta burdinarekin



Sevillako Urrezko Dorrea edota nekazal munduko hainbat pieza egin ditu Jose Tejadak.

egindako 200 bat pieza dira guztira, tartean monumentuak (Sevillako Urrezko Dorrea eta kaio-lanoria bat), jaiotza oso bat, nekazaritzako tresna guztiak, ehizakoak eta beste hainbat. Jose Tejadak adierazi digun bezala, "oso ilusionatuta nago erakusketa honekin. Le-

hen 50 piezak marraztu nituenean ea erotuta nengoen esaten zidaten... eta begira orain. Nik ere ez nuen pentsatzen honaino helduko nintzenik baina norberak gogoa izanez gero, edozer gauza egin daiteke".

Tejadak lanean jarraitzeko ilusioa dauka. Etor-

kizuneko proiektuen artean, besteak beste, Sevillako Giralda egiteko asmoa du. Urrezko Dorre bakoitza egiteko 350 ordu eman zituen baina horrek ez dio batera beldurrik ematen, azken batean gustora egindako lana baita.

Erakusketa, esan bezala, Kultur Etxean zabalik izango da martxoaren 10era arte, ohiko ordutegiarekin. Aste barruan 6etatik 9etara eta larunbat eta jaiegunetan 6etatik 8etara.

Miniaturazko monumentuak, jaiotza, nekazaritzako tresna guztiak edota ehizakoak landu ditu

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILT XO
ILEPAINDEGIA

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zerbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Gipuzkoako diruaren 2/3 kanpora

Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontua 279.976 milioioa izango da, hamar departamentu banoatua. Sarrerei dagokienez, gipuzkoarek zerga bidez ordaintzen dutena 261.300 milioira iristen da. Pasa den urtearekin konparatuta zerga bidez jasoko dena batz bestea %8,6 igoko delarik. 261.300 milioi horietatik, 101.573 langileei IRPF kontzeptuan kentzen zaiena da, eta beste 74.366 BEZ-IVAtik jasotzen dutena. Esan behar da 279.976 milioietatik 194.880 konprometitua daudela aurretik: 180.180 Autonomi Elkarterako, 11.500 milioi banketxeekiko zorra ordaintzeko eta beste 3.200 Estatuari kupoa ordaintzeko. Gelditzen den heren hori (85.135 m.) da eztabaidagai jarri zena, hortik Diputaziorako 54.294 gorde eta Gipuzkoako udal guztietara itzuliko dena 30.841 milioi besterik izango ez delarik. Gutxi asko, hori da herritarren zergen banaketa nola egiten den.

Herri Batasunak erredistribuzio orekatuagoa bilatu behar zela pentsatzen du, Estatuarekiko obligazioekin amaituz, eta Jaurlaritzarena gutxituz. Helburua herrietara -dirua ateratzen den lekura- diru gehiago itzultzea izango litzateke.

Bestalde, herritarrei zergak %8,6 igoko zaizkien bitartean, langileentzako erreferentzia gisa erabiltzen den IPCa justu erdia igo da, %4,3a. Beraz herritarren soldatak %4,3aren azpitik igoko dira, %3,5 batz bestea, aldiz zergak aipatutako %8,6 65 urtetik gorakoentzat, gutxitu fisikoentzat eta familia pobreentzat dauden laguntzak erabat miserableak direla esan behar dugu, 25.000 pta. eskaseko pentsioak daude pertsona zahar eta gutxituentzat. Laguntza hauek ez dute inongo igoerarik izango. Aldiz, Diputatu Nagusiak 771.000 pta. jasoko ditu hileko, beste 9 diputatuek 690.430,21. Zuzendariak 613.900, 12 idazkariak 286.857. Hauei hirukoa osatzen duten alderdien 6 aholkulariak gehitu behar zaizkie. Guztira 401.621.158 gehi gizarte segurantzaren kotizazi-

oak. Bazkari, protokolo eta gehiegizko beste hainbat gasturekin borobiltzen da eskandalua. Enpresa eta Sozietateetako zergak gutxitu eta enpresei opor fiskalak planteatzen zaizkien bitartean, langileentzat ez dago opor fiskalik, urtez urte ahalmen adkisitiboa galtzen doazelarik.

Erredistribuzio orekatua ez ahalegintzeaz gain, zorra ez da gutxitzen Gobernuaren proposamenaren esaten den bezala. Aurreko urteetan 11.000 milioi inguruko zor berria egiten zen bitartean, aurtun 4.500 milioioa izango dela zor berri hori. Baina horrekin ezin daiteke zorra gutxitu egiten denik esan, orain arte daukagunari zor berria eransten zaion bitartean, zorra gehituz doa.

UNEDen euskara departamentuaren itxiera bideratzen dute aurrekontu hauek. Eta UNEDeko saila mantentzeko dirurik ez dagoen bitartean, Donostiako Kursala eraikitzeko 600 milioi aterako dira aurtun Diputaziotik. Osotasunezko zuzenketan aipatzen diren beste bi gai, Udalen Foru Fonda eta iruzurraren kontrako borroka izan ziren. Ezker Abertzalea taldearen iritziz, udaletara itzultzen den dirua ez da nahikoa. Jasotzen diren zergen %15 gutxienez udaletara itzuli beharko litzatekeelarik, guztira 9.000 milioi gehiago banatuko lirateke. Udalen artean desberdintasun haundiak somatzen dira, batez ere herri txikiak eta haundiak jasotzen dutenen artean.

Aurtengo urtarirako Foru Aldundiko argitalpen batean azaltzen diren deklarazioen datuak jasoz, langile baten batz besteko soldata 2.207.000 pezetakoa izango litzateke, aldiz enpresari batek, deklaratu duenaren arabera, 1.538.000 pezeta besterik ez litzake jasoko. Enpresariak langileek baino soldata txikiagoa dutela deklaritzen dute. Gezur handi horren atzean iruzur garbia dago, gehien dutenek gutxien ordaintzeko egiten duten tranpa argitzeko ahaleginik egin gabe, mota guztietako laguntzak jasotzen dituztelarik.

BERGARAKO HERRI BATASUNA

Karnabalak direla eta

1996ko Aratuzte edo lhauteriak bazetozela eta, hilabete aurretik hasi ginen Aranzadi ikastolako Haur Hezkuntzako dantzak eta kantuak entsaiatuz eta amak etxean umeen jantziak eginenez, Franco hil eta gero tradizio bihurtu dugun astearte arratsaldeko kalejira gertatzeko asmoz. Baina heldu da zorioneko martitzena eta elurra goian behean. Zer egin? Ondotxo dakigu gure urteroko irteerak herrian duen eragina; ikusi besterik ez dago iaz gertatu zena: arratsalde horretan Ikastolan jai izan genuenez ez genuen aipatu kalejirarik egin eta, makina bat komentario eta kritika entzun behar izan genuen; eta irakurri ere bai Berrigararen, oker ez bagaude lhauteri osteko alean eta urtekarian 1995ean ez ginela kalera irten.

Aurtun, eguraldiaren panorama hura ikusirik, Plazako tabloa megafonia jarri eta ondo ikasitako saioa burutu ahal izan genuen, egunari mezezi zuen ikutu alaia eskeiniz.


Ordu berean, kanpoan ezin eta Lehen Hezkuntzako ikasle indioek pasiloetan akanpatu behar izan zituzten beraien dendak.

Ostirala heldu eta asteroko jakinminez Berrigara begiratzen hasi eta... aipamenik ere ez! Sioux batzuen argazkia, Aranzadiok hain zuzen ere, eta elurra mara mara ari zela Plazako tabloa hogen bat minututan dantzan eta kantuan izan ginen bi urtetik-bostera arteko 130 haur eta irakasleok, zer? Zuzendari jauna: bakoitzari berea eman behar bazaio, behin huts egin eta albiste izan bagara, aurtun elurra izan arren beti bezala kalera irten garelako, bidezkoa litzateke Berrigararen albiste izatea.

Aurtun bai, aurtun kalean izan gara Aranzadi Ikastolako Haur Hezkuntzako, eta datorren urtean, eguraldia lagun, ere bai.

ARANZADI IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO
IRAKASLEAK

Tiira biraka



◆ Igerilekuak itxi

Astlehenean, martxoak 4, Agorrosingo udal igerilekuak itxi egingo dira Osakidetzak agindutako garbiketa egin ahal izateko. Igerilekuak astebete inguru itxita egongo direla uste da.

◆ Enplegu ekimena

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, enplegu ekimenari buruzko jardunaldiak izango dira Kultur Etxean datorren martxoaren 13, 14 eta 15ean, goizeko 10etatik ordubatera. Izen-ematea (5.000 pezeta) datorren ostiralera arte, martxoaren 8ra arte, egongo da zabalik. Argibideak 77 91 65 telefonoan.

HILDAKOAK

Teresa Molina Peñuela

Otsailak 23, 81 urte

Pedro Lazpiur Urrutia

Otsailak 24, 87 urte

Maximo Garai Ercilla

Otsailak 24, 81 urte

Ignacio Alkorta Larrea

Otsailak 27, 59 urte

JAIOTAKOAK

Dounia El Ouardi Ouasa

Otsailak 16

Mari Angeles Uriarte

Otsailak 21

Mikel Agirre Garmendia

Otsailak 23

Julen Zubia de Llanos

Otsailak 27



Ertzaintza urte hasieratik ari da, astero, tabernen ixteko ordutegia kontrolatzen. ARTXIBOA

Ordutegia errespetatzeko abisua hainbat tabernari

Udalak ohartarazpenak bidali dizkie herriko hainbat tabernari dagokien ordutegia ez errespetatzeagatik. Ertzaintzak pasa den urtarrilaren 21ean eta 27an jasotako akten arabera, aipatutako egunetan herriko 7 tabernak ez zuten ixteko ordutegia bete eta beraz guztiei espedientea ireki zaie. Taberna horiek kategoria ezberdinak dituzte Iharduera Ekonomikoaren Gaineko Zergan daukaten izendapenaren arabera (taberna, kafe-tegia, pub eta horrelakoa). Ixteko ordua, gehien

jota, goizeko 3.30etan duete eta badira urtarrilaren 27an goizeko 5etan itxi zuten tabernak.

Lehen aldiz salatutako tabernei ohartarazpen bat bidali zaie, hurrengo batean zigor espedientea zabalduko zaiela adieraziz. Era berean, esan zaie arau haustea arina denean 200.00 pezetako isuna jaso dezaketela eta larria izanez gero, berriz, haundiagoa.

Bestalde, lehen abisua jasota zuten bi tabernari zigor espedientea zabaldu zaie, 5.000 pta.ko isuna jaso dezaketelarik.

Udal iturrien arabera, Ertzaintza urte hasieratik hasi da tabernen ordutegia kontrolatzeko aktak jasotzen. Era berean, Udaletxean herritarren kezak jaso dira tabernen ordutegiaren inguruan. Udala Mankomunitateko beste herrietan ordutegia errespatzen den eta hartzen dituzten neurriak aztertzen ari da.

Taberna eta elkarte guztiei idatzi bat bidali die Udalak, dagokien ordutegia gogorarazteko. Aurreko astebukaeran tabernekin ohi baino lehenago itxi zuten.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ Zuberoako Maskarada ikustera joateko irteera

Jardun Elkarteak datorren igandean, martxoak 10, Zuberoako Eskiula herrira Maskarada ikustera joateko autobusa antolatu du. Interesatuak Jardun Elkartean eman dezakete izena martxoaren 6ra arte. Izen-emateak 1.700 pezeta balio du.

◆ Martxoaren 8ko ekitaldiak

Udaleko Ongizate Zerbitzuak, martxoaren 8ra begira, argazki lehiaketa antolatu du. Landu beharreko gaia "Emakumea eta denbora libre" izango da eta partaide bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak aurkezteko epea martxoaren 6ra arte izango da zabalik. Sari banaketa martxoaren 8an 7etan egingo da Pol-Poleko aretoan eta erakusketa, berriz, martxoaren 15era arte izango da ikusgai. Bestalde, Virago antzerki taldeak "Las criadas" lana antzeztuko du, ostegunean 15.30etan eta ostiralean goizeko 11.30etan Zabalotegin (sarrera doan). Era berean, ostiralean, 16.30etan txokolatada izango da Pertxan eta arratsaldeko 7etan nesken arteko futbito partidua Seminarioan.

◆ Udalari espedientea

Jaurlaritzako Joku eta Ikuskizunetarako Sailak espediente bat ireki dio Udalari urtarrilaren 26an Mikel Herzogen kontzertua beharrezko baimenik gabe antolatzeagatik. Udalak ez zituen beharrezko agiriak denboraz aurkeztu, dirudienez huts administratibo bategatik.



Lokalen errebisioa martxoaren erdialderako amaituko da. Argazkian Zabalotegi lokala.

Udala kirol eta kultur taldeei uzten dizkien lokalak aztertzen ari da

Taldeekin batera erabilera araudia landu aurretik

Udala herriko kirol eta kultur taldeek erabiltzen dituzten udal lokalen errebisioa egiten ari da egunotan. Kultur eta kirol taldeekin inolako akordiorik egin aurretik, Udalak taldeei lagatuko lokalak egoera zein den jakin nahi du. Aipatutako errebisioan, besteak beste, lokal bakoitzaren m2ak, instalazio elektriko eta sanitarioa, mobleria, garbitasun egoera edota behar den moduan jartzeko dituzten premiak aztertuko dira.

Udalak 23 kirol eta kultur talderi utzi dizkie Zabalotegi, Zubieta, Mizpildi, Kartzela, Bolu edota Igerilekuetako lokalak (kasu askotan lokal berean talde bat baino gehiago dira). Luis Abajo kultur zinegotziak adierazi digun moduan, "argi

dago hainbat lokalek ez dituztela beharrezko baldintzak betetzen eta egoera hori normalizatzeko asmoa dago. Errebisioa egin ondoren lokalek dituzten beharrak aztertuko ditugu eta ahal izanez gero, hobeak izango dira".

Martxoaren erdialderako errebisioa egin ondoren, Udalak taldeekin batera erabilera araudi bat lantzeko asmoa du eta lokalak laga baino lehen talde bakoitzak egingandako lana baloratuko da puntuazioaren bitartez. Horren arabera lagako zaizkie lokalak talde horiei. Hala ere, Abajok aurreratzen duen moduan, ezin izango da lokal eskaera guztiei aurre egin, eskaerak dauden lokalak baino gehiago baitira.

LAKE

gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

CAMACHO

Drogeria

Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA

☎ 76 13 35

Jarduneko Gazte Taldeak txorimalo lehiaketa deitu du

Martxoaren 30ean, Erramu Zapatuan, egingo da

Jarduneko Gazte Taldeak txorimalo lehiaketaren edizio berria deitu du martxoaren 30ean izango den Erramu Zapatarako. Aurrekoetan bezala, 3 kategoria bereiztuko dira: 14 urtetik beherakoentzat lehena, 15 urtetik 60 urtera artekoa bigarrena eta, azkenik, 60 urtetik gorakoentzat hirugarrena. Edozein material erabili ahal izango da txorimaloa egiteko, baina lurrean tinko egon dadin ardatz bat edota oinarri sendo bat izan beharko du. Txorimaloarekin batera euskarazko esaldi bat aurkeztuko da.

Txorimaloak Erramu Zapatuko ferixan egon beharko dira ikusgai, goizeko 11etatik aurrera, eta sari banaketa, berriz, ordu batean egingo da. Lehen taldeko irabazleek egun bateko bidaia eskuratuko dute eta bigarren eta hirugarren talde-

etako lehen biek 15.000 eta 10.000 pta.ko sariak jasoko dituzte. Era berean, esaldi onenarentzat 10.000 pta.ko saria izango da. Parte hartzeko interesa dutenek Jardunen eman ahal izango dute izena martxoaren 27ra arte.

Bestalde, Jarduneko Gazte Taldeak Pazkuetan kaleratuko dituen pegatinetan jarriko den esaldia aukeratzeko lehiaketa egingo du. Martxoaren 15ean herriko tabernetan jendearen proposamenak jasotzeko buzoiak jarriko dira. Apirilaren 22an buzoiak jaso ondoren, esaldi onena aukeratu da eta irabazleak 10.000 pta.ko saria jasoko du.

Bukatzeko, gogoratu taila eta txalaparta ikastaroak emango direla martxotik maiatzera bitartean. Argibideak 76 08 19 telefonoan.



Aurreko urtean txorimalo lehiaketa oso arrakastatsua gertatu zen.

Hauteskunde OROKORRAK **96**

12.799

Igandeko hauteskunde orokorretan 12.799 lagunek izango dute Bergaran botoa emateko eskubidea.

KOLEJIOAK

Hauteskunde kolejioak goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte egingo dira zabalik. Ohizkoa denez, botoa Seminarioan, Poligonoko Aranzadi Ikastolan, Osintxuko liburutegian, Martokuako eskolan edota Labegarrietako elizaren ondoko lokalean eman beharko da.

HAUTESKUNDE KANPAINA

Hauteskunde kanpainak ez du oihartzun haundirik izan Bergaran. Begoña Lasagabaster Kongresurako EAKo Gipuzkoko hautagaia Bergaran izan bazen ere, ez dugu beste bisitarik izan. HBk hainbat hitzaldi eman ditu eta EAJk, berriz, furgoneta baten bitartez egin du publizitatea herriko kaleetan.

BERRIGARAREN ORRIA

BERRIGARAK hauteskundeetako emaitzekin orri berezia kaleratuko du astelehenean. Bertan, besteak beste, emaitzak, alderdien iritziak edota aurreko hauteskundeetako datuak aurkitu ahal izango dituzue. Orrialde berezia kiosko, okindegi, denda edota ikastetxeetan eskuratu ahal izango duzue.



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Pepe Rei

kazetaria

Galiziarra jaiotzez, Pepe Rei Egineko kazetariak (48 urte) 18 urte daramatza gure artean. "La red Galindo" edota "El jesuita" liburu arrakastatsuen egilea pasa den ostegunean Bergaran hizlari izan genuen.

Nola uste duzu bukatuko dela GALen auzia?

- Ez dakit. Dakidan bakarra zera da: ez direla GALen bihotzeraino helduko, GALen bihotza Estatu espainiarra bera baita. Amedo edo Galindo GALen zati bat besterik ez dira. Galindo igual deklaratzera deitzen dute eta Amedo, Galindoren ondoan, anekdota bat zen. Oso informazio pribilejiatua dauka eta ez dakit zer egingo duen. Hala ere, Estatu espainiarrreraino, Koroa espainiarrreraino, ez dira iritsiko.

- Zeintzuk dira GALen auzian inplikatu nagusiak?

- Gerra zikina Ejerzito espainiarrak berak disei-

natzen du. Beraz, Estatu gorena inplikaturik dago eta bertako nagusia erregea da. Horraino ez dut uste helduko direnik, Estatuaren amaiera izango bait litzateke.


- PP Gobernura iristekotan, GALen aurrean zein jarrera hartuko duela uste duzu?

- Hasteko, errepresio gehiago. Aznarrek behin baino gehiagotan esan du bere asmoa auzi hau alde batera lagatzea dela. Hauteskondeei begira ez du egingo baina hori da bere nahia.

- Galindok PPrekin kargu garrantzitsua izan dezakeela argitaratu da. Sorpresarik hartu duzu?

- Ez nau harritu. Baina Garzonek Galindo deitu dezake deklaratzera bihar bertan, kartzelera bialdu dezake. Garzonek Estatu hau perfekzionagarria dela eta oinarri demokratikoak dituela uste du. Baina Estatua guztiz korruptoa da.

- Bestalde, nola ba-



"Aznarrek askotan esan du GALen auzia alde batera laga nahi duela".

loratzen duzu Idigorasen atxiloketa eta ETAREN bideoaren asuntua? Zeintzuk beneficiatu eta kaltetuko dira horrekin?

- Estatuan demokraziarik ez dagoela frogatu da. Adierazpen askatasuna onartu ez eta horren erabilpena egiten duten buruzagi politikoak atxilotzen dituen Estatuak argi uzten du hemen ez dagoela demokraziarik.

Idigorasena bahiketa legal bat da eta herrialde honen askatasun adierazpenen aurrean Estatu totalitario baten erantzuna. Asuntua honek Estatu espainolari beneficiatzen

dio, -espainiar boto gogor eta erreakzionarioaren bila dabilta eta. HBk bototan gora egin dezake baina hori baino garrantzitsuagoa da sektore oso garrantzitsu batek independentzia lortu arte borrokan jarraitzeko duen borondatea.

- Bukatzeko, nola lortzen duzue informazioa Egineko inbestigazio taldean?

- Informazio iturriak ez dira inoiz esaten, baina gogor lan eginaz eta herriaren alboan egonez. Funtsezkoa da jendearen ondoan egotea, informazioa kalean dago eta horrela informazioa lortzen da.

"Amedo Galindoren ondoan anekdota bat da"

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Dokorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

V. KAPITULUA

SEMINARIOKO ORGANOA

Aste honetako artikulua hau "berri txar" batekin hasi behar dugu. Seminarioko organoa oso egoera txarrean dago, urte asko baitira inork ez duela jo eta, noski, eraikinaren egoera txarrak, hezetasunak..., ez dute batere lagundu.

Organo honen aurretik besteren bat egon zen edo ez ezin dut ziur esan, beharbada bai. Segurua da dominikoek bertan emandako urteetan, hasieran armonium bat zegoela, eta gero organo hau egin zela.

1949.eko organoa

Organoa 1949. urtekoa da, Organería Española S.A.k egin (OESA). etxe azpeitiar hau oso garrantzitsua izan da Euskal Herrian.

Organugileei buruzko datu batzuk: Mariaren Lagundiko organoaz hitzegitean, Amezua abizena aurkitu dugu bi aldiz. Probintzia mailan, eta Euskal Herri mailan, Azpeitia izan da organugintzaren zentru neuralgikoa eta bertan garrantzitsuena, Amezua senitartea, 1700. urte-tik lan honetara dedikatuak.

Amezuarren erreleboa, OESAK hartu zuen nolabait, Aquiluni Amezua

hiltzean, azkenengo organogile amezuarra.

Bergaran "Azpeitiko" organo ugari dauzkagu: Mariaren Lagundiko lehen organoa, 1851.ekoa, Juan de Amezuarena eta gaur egungoa, haren seme Aquilinoñena. Azken honen testigua, Rafael Puignauk hartu zuen eta honek OESA sortu zuen Azpeitian.

OESAKo lanak ere baditugu Bergaran: Seminarioko organoa eta Santa Marinakoaren berriztapena. Beraz, estratu desberdin asko to-

BERGARAKO ORGANOAK

patu ditzakegu Bergaran.

Martxoaren zazpian inauguratu zen

Seminarioko lana 1949ko martxoaren zazpian inauguratu zen. Bertan, Bergarako Orfeoia hartu zuen parte, Don Román Oyarzabal zuzendaritzapean eta Ramón González Amezua, organojole lanetan.

Bi teklatu

Bi teklatu ditu organoak, pedalierra eta 12 erregistro. Organoren tripak (tubo, hauspo...) zementuzko estruktura baten gainean daude, bi metrotako altuera batera, organistaren gainean.

Bi teklatu ditu organoak, pedalierra eta 12 erregistro. Organoren tripak (tubo, hauspo...) zementuzko estruktura baten gainean daude, bi metrotako altuera batera, organistaren gainean.

Organoa egin zen urtean jadanik teklatutik tuboetarako transmisioa guztiz elektrifikatua egin zen eta honek errazten zuen teklatutik tuboetara nahi adinako distantzia egotea. Organoaren muina altuera hartan jartzea, koroaren taininatik izango zen, berau oso txikia baita eta organoa lurrraren mailan jarriz gero ez zen inor sartuko koruan. Fraileak bertan erreztatuko zutenek lekua beharko zuten...

Egoera kaskarrean

Penagarria da organoa hain egoera txarrean egotea. Komenigarria litzateke konpontzea eta erabiliko den toki batera eramatea.



SEMINARIOKO ORGANOA 1949KO MARTXOAREN 7AN INAUGURATU ZEN.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIONDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Donostia-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Gasteiz

ASTELEHENETIK OSTIRALERA	ZAPATUAK (LANEGUNAK)	DOMEKA ETA JAI EGUNAK
08:15	08:15	-----
12:30 (1)	12:30 (1)	-----
15:00 (2)	-----	-----
18:00	18:00	18:00 (1)
19:30 (1)	19:30 (1)	-----
20:45 (1)	20:45 (1)	20:45

(1) ARRASATERAINO (2) ESKORIATZARAINO

Gasteiz-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Bergara-Soraluze-Donostia


ASTELEHENETIK OSTIRALERA	ZAPATUAK (LANEGUNAK)	DOMEKA ETA JAI EGUNAK
06:20 (1)	07:20 (2)	-----
07:30	07:30	09:00
12:30	12:30	-----
14:20 (2)	14:20 (2)	-----
18:30	18:30	18:30


(1) ARRASATEK IRITZEN DA (2) ESKORIATZATIK IRITZEN DA

PESAk erantzuten du



Astelehenetik, martxoak 4tik, aurrera ordutegi berria Donostia-Gasteiz eta Gasteiz-Donostia lineetan.





'Club 29 febrero' elkarteak sortu da aurten, bisiestoen euren arteko harremanak bultzatzeko elkarteak.

Gazterik gazteenak

Bisiestoak: lau urtean behin urtebetetzea

Aurtengo egutegiari otsailaren 29a gehitu zaio; urteak 365 egun izan beharrean 366 ditu, 1996a bisiestoa baita. Jenderik gehienak urtebetetze eguna urtero ospatzen badu ere, badira urteak lau urtean behin egiten dituztenak. Horietako zenbaitekin ospatu dugu hain berezia duten urtebetetzea.

Ez da ohikoa otsailaren 29an jaiotako lagun askorekin topo egitea. Marta Moral, Berrigarako kolaboratzaileaz gain ez genuen inor

ezagutzen. Epaitegira jo dugu Bergaran egun horretan jaiotakoak zenbat diren jakiteko eta bost izen besterik ez ditugu aurkitu; gainera, denak

1948az geroztikoak. Hala ere, badakigu, gehiago egon badaudela. Roman Agirrezabalek esan digunez, dirudienez, lehen ez zegoen ondo ikusita egun horretan jaiotzea, suerte txarra ematen zuelako-edo, eta abadetxean aurreko edo hurrengo eguneko jaiotze datarekin erregistratzen zen.

Gai honen gainean zerbait dakien Karlos Ostolaza Santa Marinako eta Osintxuko apaizari galdetu diogu, baina berak horrelakorik sekula ez duela entzun erantzun digu.

Elkar ez dute ezagutzen

Epaitegian jasotako zerrenda hartu eta bisies-toengana jo dugu. Duela 40 urte jaio eta 10 urte bete dituen Roman Agirrezabalek esan digu ez duela jende asko ezagutzen. "Osintxun -bertakoa da- otsailaren 28-29rako 3 haur ziren jaiotzekoak eta hirurak lehenago jaio dira, esaten nien eusteko, baina ezin izan da". Hala ere, aurten bisiestoen "Club 29 febrero" elkarteak sortu denez jende gehiago eza-

gutzeko aukera izango duelakoan dago. "Otsailaren 29an jaiotako Donostiako ostalari bati bururatu zitzaion ideia, komunikabideetan berria zabaldu eta dagoeneko 30 bazkide ditu elkarteak".

Urtebetetzea ospatzeko atzo bazkaria egin zuten Donostian. 60ren bat lagun elkartu ziren. Besteak beste, 56an jaiotako bikiak eta lehen aldiz urteak egin dituen 4 urteko mutiko bat joan ziren. Bergararik, berriz, bi lagun: Roman Agirrezabal eta Justina Larrañaga.

Elkarte bitxia

Romanek elkartearen berri lagun baten bidez izan zuen. "Oso ideia polita iruditu zait eta horregatik joan nintzen atzo Donostiara". Justi-

nak, berriz, Romanek esan diolako jakin du. "Joan zen astean Donostiara joan ginen argazkia ateratzea eta ospakizuneko plana egitera. Karneta egiteko fitxa egiten ari nintzela, ideien bultzatzailea harri eta zur geratu zen bere adin berekoa nintzela konturatu zenean. Ez eizuen beste inor ezagutzen, eta emozioz ia paperak ere erori egin zitzaizkion".

Justinak normalean ez du ospatzen urtebetetze eguna, baina bisiestoa tokatzen denean... "lagun batekin Donostiara joaten naiz afaltzera. Ah, zer nolako afaria egiten dugun!, lau urtean behin izaten denez ondo ospatu beharreko urtebetzea izaten da. Aurten bazkaria izan dut elkartearekin eta ga-

uean afaria lagunarekin, primerako urtebetetze eguna".

Alde onak eta txarrak

Bisiestoek adina esatean ez dute, beste batzuk bezala, ziria sartzen ibili beharrik. Justinak, esaterako, harro esaten du zenbat urte dituen: "15 urte dudala esaten dudanean -36koa daterantzuten didate bisiestoa naizelako nagoela gazte. Baditu bere alde onak ere".

Roman ere ez da zoriontzeke eta ospakizun barik geratzen. "Otsailaren 28an edo martxoaren batean, baina beti ospatzen dut. Bisiestoa ez denean bi egunetan zoriontzen naute, baina ez da nire urtebetze eguna, otsailaren 28an oraindik egin barik na-

goelako eta martxoaren batean dagoeneko urteak beteta ditudalako".


Urtebetetzea bisiestoan, erregalua urtero

Arantxa Palacioren zat bisiestoa izatea bitxia da, "sekula ez dut planteatu 28koa edo batekoa izatea nabiago nuen, bitxia da 29koa izatea. Gu olinpiaden urtekoak gara, olinpiadekin batera etortzen da gure urtebetetzea".

Irune Carvallok dioenez, zoriontzea jende gutxiri ahazten zaio. "Jendeak bi egun ditu zorionak emateko, otsailaren 28an ahaztuz gero, martxoaren batean, beraz, egunen batean ahaztuz gero ez da gaizki geratzen, beti asma-tzen du". Hala ere, de-



"Guk olinpiadekin batera betetzen ditugu urteak". Arantxa Palacio.



"1936koa izan arren, 15 urte dudala esaten dut". Justi Larrañaga.

URKIOLA BURDINAKI DENDA

Denda itxi behar dugula eta, %50eko deskontuak


• MUGERTZA GAINA • BERGARA •



MUJIKA

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



"Bisiestoa ez denean bi egunetan zorientzen naute". R. Agirrezabal.



"Orain arte egun horretako inor ez nuen ezagutzen". Irune Carvallo.

nek diote urtebetetzea lau urtean behin izan arren, erregalua urtero jasotzen dutela, "lau urtean behin jasotzea? Horixe bakarrik behar genuen!".

Arantxak 13 urte bete ditu. "Umeez zenbat urte dudan galdetu eta 13

entzuten dutenean ez dute sinisten. 'Nola izango dituzu 13, nik 9 baitut? Zu zaharra zara' erantzuten didate, harrirituta. Nik ez diodala gezurrik eta zer pentsa lagatzen ditut". Irunerri lagun batzuk esaten diote otsailaren 29an jaioa

izatea suerte txarra dela. Bera, ordea, ez dago ados: "beti ematen du berriketa eta gustatzen zait. Orain 4 urte ditut, baina orain arte 3 urte eta laurden, eta horrelakoak esaten ibili naiz". Irunek aurten ez du ospakizun berezirik izan.

"Azterketa garaia da eta liburu aurrean ospatu behar izan dut. Orain arte egun horretako inor ez nuen ezagutzen, orain izan dut jendea ezagutzeko aukera eta gainera elkarteetan sartuko naiz. 2.000.ean haundikiro ospatuko dut".

Miguel Altuna Institutua

BERGARA

Hezilan plana

HASIERA: Martxoak 4

- Oinarrizko elektrizitatea 40 ordu
- CNC. Tornua 40 ordu
- Word 40 ordu

HASIERA: Apirilak 4

- Ordenadore bidezko diseinua 50 ordu
- Ordenadorez programatutako automatikak 40 ordu
- CNC Fresa 40 ordu
- Oinarrizko mekanografia ikastaroa 60 ordu
- Komunikazioa enpresatan eta erakunde ofizialetan 60 Ordu
- Oinarrizko kontabilitatea 60 ordu



Miguel ALTUNA

intsitutua

Bergara



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Saila

Hauteskunde kanpainak eraginik izaten al du zure botoa erabakitzeke?



Francisco Etxarri

61 urte, jubilatua


Nik neuk antzera jarraitzeko asmoa daukat. Botoa erabakita izaten dut hauteskunde kanpaina hasi baino lehen.



Itziar Mujika

43 urte, etxekoandrea


Ez, botoa erabakita izaten dut eta. Egia esanda, hauteskunde kanpainari ez diot kasu haundirik egiten.



Martin Kortabarria

71 urte, jubilatua

Jeneralean botoa aurrez erabakita egoten da. Kanpainen nahastea besterik ez da egoten. Botoa, nire ustez, aurretik pentsatuta izan behar den gauza da.



Victorino Fernández

71 urte, jubilatua

Oraindik botoa emango dudan ez dakit... Alderdi denak antzerakoak dira baina azkenean joango naiz. Zertxobait jarraitzen dut kanpaina.



Gema Rementeria

32 urte, langilea

Nik normalean ez dut botatzen. Lehen batzuk kale egin zidaten eta besteez ez naute konbenzitzen... Ez dakit zeini eman botua baina kanpainak ez dauka zerikusirik.



Begoña Etxaniz

39 urte, etxekoandrea

Ez, nere kasuan ez dauka eraginik. Nik gutxi gora-behera erabakita daukat botoa nori eman.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50



Otsailak 26. Gogoetak

Nik ez dut neure burua superstiziosotzat hartzen baina, egia esan, hau da gutxien gustoko dudan urteko hila, agian negu gorrian gaudelako... auskalo! Dena dela, badauzkat fundamentozko argudioak: gaztetan azterketa garaia; osasun krisialdi gogor bat zezeilean ere pasatu nuen; Tejerorena hil honetan gertatu zen eta nola ez elurteak... aurtengoa baino gogorragoak ditut buruan, hamabost eguneko elurte trinkoa. Oraingoa askoz arinagoa izan bada ere, alde on eta txarrak ekarri dizkigu. Hala nola, hainbat errepede moztuta, kamioiak bideetan trabaturik, gidariak eta bidaiariak etxera bueltatu ezinik; eskerrak bizpahiru egun besterik ez duela iraun. Edozein modutan ere, etxeko epeltasunetik elurra barra-barra nola botatzen duen ikustea ez al da polita izaten? Onerako izan bedi.

Baina 1966ko otsail honek alderik txarrena gizarte eta politikoa mailatik ekarri digu. Fernando Múgica eta Francisco Tomás y Valienteen hilketek ilundu dute giroa, oso sentimendu tristeak hurbildu dizkirate; zeharo minduta utzi naute. Aitzitik, politikoez jarraitzen dute bata bestearen kontra halako kasu mingarriak aitzakiatzat hartuz, nork baino nor gehiagoka. HBko bideoa dela, PSOEkoa dela; batzuen ahotan pakea, tolerantzia, askatasuna hitzak, besteen ahotan pakea, independentzia, elkartasuna... hain ederrak diren hitzok bere esanahi propioa galduz eta denok Gandhik esandakoa ahazturik: "pakearentzat ez dago biderik, pakea bidea baita".

Dagoeneko martxan gaude. Udaberria gertu dugu eta beharbada bide korapilatsu hau argituko zaigu. Martxoan ere lasaitasuna eta samurtasuna dizdiratzen zuen pertsona bat dut gogotan, joan zitzaigun urteurrena delako eta oroigarri atsegin honekin hasieran neuzkan susmo tristeak itxaropen bihurtuko lirakeela konfidantzaz bidaltzen diot nire agurrik beroena.

Henar Mallo. In memoriam.

Maite MOZOS



Famatuen cocktaila

Herritarrei hauteskunde kanpainak ez zaizkiela interesatzen, eta batez ere, kasu haundiegirik ez dietela egiten esaten dute. Baieztapen arriskutsua da oso.

Hori bai, kanpaina hau berezi samarra izan da, entretenigarria, manifestazio, bideo eta jende ospetsuz josia... eta binakako nahiz hirunakako eztabaidarik gabea.

Egia da denek, alderdien ordezkari guztiek, hitzetik hortzera erabiltzen dutela zorioneko programa hitza, eta izango dute, bai, nik ez dut zalantzan jartzen; zorionez edo zoritxarrez, denak irakurri eta aztertu behar izan ditut eta.

Baina ez nago hain ziur boto emaleek programen mamia jaso ote duten, eta horrek zalantzan jartzen du alderdiek dituzten komunikazio-aholkularien profesionaltasuna, edo, halakorik ezean, aukera politikoen benetako helburua.

Baina, are larriagoa dena, proposamen politikoei baino garrantzi haundiagoa ematen diegu bestelako kontuei: Julio Iglesiasek Aznarri "De niña a mujer" abestuko dion ala ez, Antonio Banderasek Felipe Gonzalezi umetxo "malagar-amerikar" sozialista bat emango ote dion, edo Luis Eduardo Autek "Al alba" kantatuz Julio Anguita hunkitu eta gaztetuko ote duen.

Eta ez hori bakarrik, eurek ondotox dakite horixe dela milaka herritarren boto intentzioa aldatzeko biderik onena. Benetan patetikoa.

Marta MORAL

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

MUJIKA
Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

■ **Urrezko eztaiak**

Asteazkenean, otsailak 28, Bergarako bi bikotek beren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten.

Kruz Jauregi

• eta


Hermenegilda

Eguren (ezkerrean) alde batetik eta **Jesus Igartua** eta **Carmen Garai** bestetik orain 50 urte ezkondu ziren. Beren zilarrezko eztaiak bete zituztenean Elgetako Martintxo jatetxean bildu ziren eta asteazkenean, Sierbetan meza entzun ondoren, bazkaria egin zuten Azpeitxi jatetxean. Hala ere, ospakizunak ez dira hor amaituko. Hermenegildak eta Kruzek igande honetan familiartekoekin bazkaria izango dute Lasa jatetxean eta Carmenek eta Jesusek, berriz, martxoaren 31n Zumelagan izango dute senideekin bazkaria. Zorionak lauri!!



■ **Trenaren inguruan**

Abiadura Haundiko Trenaren Aurkako Asanbladak te honetan antolatutako ekimenen artean, herriko ikastetxeetan aipatutako trenaren inguruko erakusketa ikusgai izan astelehenerik ostegunera bitartean. Ikasleek, panelen bidez trenaren ibilbideari buruz xehetasunak jaso ahal izan zituzte. Argazkian, Miguel Altu institutuko ikasle batzuk lehen aipatutako panelak ikusten.



■ **Etxaniz eta Ibaberi omenaldia**

Aurreko ostiralean **Jose Mari Etxaniz** eta **Iñaki Ibabe** preso bergarrei omenaldia eskeini zitzaizkien Udaltaldearen Pilotalekuan. Jende dexente bildu zen bertara eta 16 urtez preso diren Etxaniz eta Ibaberen senideek

(argazkian) omenaldi hunkigarria jaso zuten. Aurretik **Leire, Monika eta Ane** Soralaruzeko abeslariaren emanaldia izan zen. Ondoren, esan bezala, senideek hainbat opari jaso zituzten (tartean **Maidor Osa** iazko Berrigarako Amodiozko Gutunaren Lehiaketako irabazlea eta **Ainhoa Agirrezaldegi** bertsolariaren olerkiak) eta aldi berean preso dauden gainontzeko bergararrak gogoratzeko tartea egon zen. Preso egondako batzuk oholtzara igo ondoren, bertaratuek "Eusko gudariak" abestu zituzten. Ekitaldiari amaiera emateko **Bittor Aiape** kantari gaztearen emanaldia izan zen.



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

■ **Despedida bazkaria**

Pasa den otsailaren 16an **Larrialdietako eta Anbulategiko langileek** despedida bazkaria eskeini zioten **Jesús Barruso** praktikanteari. Jesús Barruso 1977tik gaur arte



izan da Larrialdietan lanean eta orain jubilatzeke ordua heldu zaio. Lankideek omenaldi bazkaria antolatu zuten orain pare bat aste Antxoni jatetxean eta oroigarri gisa goiko argazkia atera zuten. Elkarrekin egun ahaztezina igaro zuten eta berarentzat ere oso hunkigarria izango zelakoan gaude. Zorionak Jesús Barrusori!!

■ **Hormaren etorkizuna kolokan**

Aranzadi Ikastolak

argazkian ikus daitekeen Seminarioko horma hori konpontzeko eskakizuna luzatu dio Udalari. Aranzadi Ikastolaren arabera, aipatutako horma oso egoera txarrean geratu da ondoko eraikuntza bota zenetik eta alboan egin zen

espaloiarekin arriskua areagotu egin da. Alboko eraikuntza botatzea Udalaren erabakia izanenez, ikastolak Udalari eskatzen dio horma konpontzeko. Hala ere, Udalak hormaren jabe ez denez, konponketarik ez duela egingo erantzun dio Ikastolari. Gaia oraingoz mahai gainean dago horma nork konpondu erabakitzen den bitartean.

Zertan dihardute ba?



José Carlos Vicente 25 urteko kazetari bergararrak Dorleta argialetxeak kaleratutako "Altimetrías del Pais Vasco" liburuan kolaboratu du. José Carlos Vicentek Mario Ruiz liburuaren egileari lagundu dio Euskal Herriko mendateei buruzko testuetan. Aipatutako liburua batipat zikloturistei zuzenduta dago eta bertan mendateei buruzko xehetasun guztiak ematen dira. José Carlos Vicente Informazio Zientzietan lizentziatua da Leioako Fakultatean eta, besteak beste, Ciclismo a fondo, Marca edota Prest aldizkarietan kolaboratzaile lanak egiten ditu.



BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74


Maxim's
☎ 76 20 61

IKUSBI
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK
Irala, 5 ☎ 76 53 09

Ani Unanua

36 urteko zaldibitar hau (alaba bat) orain 8 urte zabaldu zen Bolu Gimnasioko arduraduna dugu. 300 bat lagun ari dira gimnasioan eta Anik mantenimendua, aerobic eta pesa klaseak ematen ditu bertan.

- Forma onean al zaude?
- Bai, obligazioz piskat.
- Asko zaintzen duzu zeure burua?
- Bai.
- Kirola goizez ala arratsaldez?
- Goizean goiz nahiago.
- Forman egoteko sekreturik?
- Saiatu egin behar... Eguneroko lana egitea.
- Jan nahi beste egiten duzu?
- Dieta bat jarraitzen dut. Kulturista eta gimnasten dieta oso gogorra da.
- Janari bat?
- Baserriko oilaskoa.
- Atsegin ez duzun bat?
- Arraultza frijituak.
- Mutilak ala neskak kirolzaleago?
- Neskak mutilak baino gehiago saiatzen dira.
- Zergatik?
- Gehiago zaintzen direlako, nahiz eta gizonak gehiago zaintzen hasi.



"Gehien atsegin dudana kirola pelota da eta gutxien, berriz, eskubaloia. Txikitan futbolista izan nahi nuen. Neskak mutilak baino gehiago saiatzen dira kirolean. Igandean botoa ematera joango naiz"

- Kirol bat?
- Pelota.
- Gutxien atsegin zaizuna?
- Eskubaloia.
- Kirolari bat.
- Etxaniz.
- Zer izan nahi zenuen txikitan?
- Kirolaria, futbolista.
- Ikasle ona al zinen?
- Erdipurdikoa.
- Telebista programa bat?
- Informatiboak.
- Irakurritako azken liburua?
- Elikadurari buruzko bat.
- Animalia bat?
- Zaldia.
- Ilargira bidaiara egingo zenuke?
- Ez. Kubara nahiago.
- Zeinekin?
- Zezeagarekin.
- Kostaldea ala barrualdea?
- Kostaldea.
- Zure bertute bat?
- Umore onekoa izatea.
- Eta defektu bat?
- Askotan onegia izatea.
- Neska batengan zer apreziatzen duzu gehien?
- Momentuan eskuak eta begiak.
- Eta mutil batengan?
- Lagun ona izatea.
- Botoa emango al duzu domekan?
- Bai.
- Hauteskunde kanpaina jarraitu duzu?
- Ez gehiegi, normalean botoa hauteskunde kanpaina hasi aurretik erabakita izaten dut.

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

DEBA GARAIKO ABELAZLE ELKARTEAK

Martxoaren 17an, Aretxabaletako Udaletxean ohiko bilkura orokorra egingo dela ohartarazten du.

ORDUA: 11.30: Lehenengo deialdia • 12.00: Bigarren deialdia

ETXEBIZITZA

Pisu eguzkitsua Maduran salgai. ☎ 76 45 03.

Pisua alokatuko genuke Bergaran. ☎ 76 25 31 (Alex) edo 76 13 64 (Aitor).

Lokala alokatzen da Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

Pisua salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Etxe berria Masterrekan salgai. ☎ 76 49 87.

Pisua salgai Burdñaten. 70 m². ☎ 76 38 06.

Pisua alokatzen da Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

Garajea salgai Iargarain. ☎ 76 44 25.

Lokala alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden 25ean. ☎ 76 09 37/53 55.

Pisu bat alokatzen da Anzuolan. ☎ 76 21 06.

Taberna alokatzen da. ☎ 76 46 90.

Garajea salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 13 93.

DENETARIK

Txakurarendako kasetaxikia salgai. ☎ 76 09 12.

Montesa H7 Enduro motorra salgai. ☎ 76 31 40.

Giltza batzuk topatu ditugu Santutxun. Central Hispanoren labearekin. ☎ 76 03 97.

Hi-Fi kate txiki bateko bifaile salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauz).

Urrezko pultsera galdu nuen otsailaren 25ean. Sarrituko da. ☎ 76 24 33.

Eraztun bat galdu nuen Karnabal domekan taberna bateko komunetan. ☎ 76 23 82.

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Ford Sierra kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Musika bateria salgai. Ia berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

R-14 kotxea (SS-N) saltzen dut. Oso merkea. ☎ 76 03 93.

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

"Imar" karro-denda salgai. ☎ 76 58 62 (gauz).

Opel Corsa (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

Zorro bat (walk-manarekin) galdu dut Usoako plazan. ☎ 76 31 05 (losune).

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Matematika klaseak. ☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).


Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak arratsaldez klase partikularrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika (Enpresaritza maila) klaseak hartuko genituzke. ☎ 76 26 82.

Zaharrak zainduko nituzke, egunez zein gauz. ☎ 76 11 11.

ARREGUI, E.M.**AROSZTEGIA**


- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78

**TOSHARE**

☎ 76 29 70



*"Salbuespen bakarra
Bernardo Atxaga da.
Bestalde, best seller
amerikarrak gustoko dituzte"*

*"Liburu bat
aukeratzerakoan lagunen
iritzia oso inportantea da,
kritikek pisu gutxi daukate"*

MARIJO OLAZIREGI, JUSTO GARATE BEKADUNA

"Behartuta ez daudenean euskarazko liburu gutxi irakurtzen dute gazteek"

Marijo Olaziregi lasarte-arrak (32 urte, Euskal Filologian lizentziatua) 1995eko Justo Garate beka jaso zuen iazko urrian. Bergarako Udalak 900.000 pzta. eman dizkio, urtebeteren barruan Euskadiko gazteen irakurketa ohiturei buruzko ikerketa egiteko.

- Nolatan bururatu zitzazun Justo Garate bekara aurkeztea?

- Prentsagatik ezagutzen nuen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, urtero gai ezberdinak lantzen direlako. Animatu egin nintzen, aurkeztu, eta nire lana aukeratu zuten. Dagoeneko hiru hilabete eman ditut lanean.

- Eta zer moduz orain arte?

- Oso gustora, batez ere kontutan izanda lehendabiziko hiru hilabeteak izan direla.

- Kontaiguzu orain arte egindakoa.

- Euskal gazte eskolatuak zer irakurtzen duten, zergatik eta zer gusto duten aztertzeko eman didate beka. Orain dela bost urte Hego Euskal Herriko ertainetako gazteekin, hau da, 14 urte



"Neskek mutilek baino liburu gehiago irakurtzen dute".

18 urtera artekoekin, hasi nintzen. 56 ikastetxetan 3.000 inkesta egin genituen. Orain, berriz, 18tik 22ra arteko gazteekin nabiltu. 700 karta banatu ditugu eta 180tik gora erantzun digute. Orain taulak atera eta datu horiek interpretatzen dihardut.

- Eta orain arte ikeritutakoaren arabera, ze konklusio atera duzu?

- Datu inportante eta kezkarri bat, gehiago irakurtzen dutela erdaraz euskaraz baino. Institututik ateratzen direnean, jeitsi egiten da euskal literaturarekiko zaletasuna.

Ematen du euskaraz irakurtzera behartuta ez daudenean, ez dutela irakurtzen. Zerbaitek huts egiten du. Euskaraz irakurtzen ondo moldatzen ez direlako edo gustatzen ez zaielako, kontua da euskaraz gutxi irakurtzen dutela.

Argi dago euskal literatura beste modu batera planteatu behar dela, gustoak aztertu behar dira, protagonismo gehiago eman irakurleari, betiko topikoak ahaztu... Salbuespen bakarra Bernardo Atxaga izango litzateke. "Behi euskaldun baten memoriak", esate ba-

terako, eskolatik kanpo irakurri dute askok. Dударik gabe, bera da gehien gustatzen zaiena.

- Atxagaz gain gustoko dituzten beste autore batzuk?

- Stephen King, Isabel Allende, Best Seller amerikarrak "Viven" edota "El clán del oso cavernario"... Klasiko espainolak, Delibes eta hauek, ez dituzte aipatu ere egiten.

- Neska eta mutilen artean ba al dago ezberdintasunik?

- Bai, emakumeek askoz ere gehiago irakurtzen dute eta nik uste dut datu hori badakitela idazleek. Hala ere, zenbat idazle emakumezko daude?... Esan behar da, bestalde, badaudela autore batzuk bereziki nesken gustokoak direnak, Isabel Allende, García Márquez... Mutilak, akziozko eta abenturazko nobeletara gehiago jotzen dute.

- Eta irakurketa noiz eta non egiten dute?

- Bakarrik eta etxean irakurtzen dute eta batez ere uda partean. Bestalde, liburu bat aukeratzerakoan lagunen iritzi oso inportantea da. Kritikak edota irakasleen iritziak pisu gutxi daukate.

1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	28	12	41	12
2. ERROTAGAIN	28	12	42	20
3. MONGATXURRA	25	12	51	21
4. OGIZUN	23	12	43	37
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	22	12	39	29
6. KABIA	19	13	30	32
7. BILDURBAREK OPEL/LAM	14	12	29	34
8. ORTZI	13	12	21	39
9. ARLOTEAK	12	12	21	28
10. OZAETA	4	12	29	60
11. UFALA	3	12	29	61
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	38	14	101	44
2. A ZE FLAXA	32	14	48	33
3. PAGOMENDI	29	14	65	42
4. ARTUSAMAK	26	14	53	38
5. NAIKARI HOOLIGANS	19	14	52	51
6. UVE BIKOITZA	16	14	37	56
7. KAYAK OS JARDINEIROS	16	14	61	52
8. HALTZARI	15	14	33	59
9. ETXAGI	13	14	58	71
10. AUTOBEREZI	12	14	42	54
11. INDARGORRI	12	14	18	37
12. ERI	10	14	34	51

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	37	15	80	41
2. SOROPOTROAK	36	15	84	42
3. EZINLEIKE	27	15	70	41
4. LA JUVE	25	15	47	48
5. NEKROFIKOS	24	15	62	63
6. AMOZKIBAR	23	14	35	24
7. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	15	52	54
8. MOSKIS	20	15	38	60
9. EH BITERRAK	14	14	28	59
10. IGANDEKOAK	10	15	35	63
11. ARI ARI	9	15	56	71
12. SHAKTALE	8	15	29	57

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	34	13	73	25
2. GUADALEST	29	13	58	25
3. TXIPIRON	28	14	54	33
4. PJS	25	13	59	35
5. OSINTXU	23	13	56	44
6. MATXAKATEGI	20	14	59	63
7. PATXARAN TEAM	17	14	46	45
8. PATA NEGRA	16	14	43	80
9. LABEGARAIETA	15	13	42	60
10. ALDOKA MALDOKA	10	13	38	53
11. XURRUPAK	0	14	22	92

TALDEAK



Autoberezi taldea Jaio Manzanedo, Jabi Etxeberria, Miguel Pérez, Alberto Guerrero, Miguel Aranes, Ion Rodríguez, Iban Loiola, Diego Osuna, Felix Agirre eta Mikel Urzelaik osatzen dute. 5 urte daramatzate elkarrekin eta joan zen urtera arte Revienta izenarekin jokatu zuten. Aurten, berriz, izena aldatu dute eta 2. mailan dabilta. Ezin esan emaitza onak lortzen ari direnik, baina oraindik partidu asko gelditzen dira eta aurretik doazenak ez daude hain urrun. Dena den, partiduak irabazten hasi beharko dira, mailaz jeitsi nahi ez badute.

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

19:00: Ogizun-Ortiz • Uve Bikoitza
20:00: Pagomendi-Uve Bikoitza • Ogizun

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Labegaraieta-Aldoka Maldoka • PJS
10:00: PJS-Osintxu • Aldoka Maldoka

IGANDEAN BARRUAN
16:00: Etxagi-Kayak Os Jardineiros • Eri
17:00: Jauja OH Zerezos-Eri • Kayak OJ
18:00: A Ze Flaxa-Naikari H. • OH Zerezos
19:00: B. Canalejas-Mongatxurra • A Ze Flaxa
20:00: Guadalest-FAC • Mongatxurra

IGANDEAN KANPOAN

16:00: Ezinleike-Nekrofilikos • Moskis
17:00: C. Bergara-Moskis • Nekrofilikos
18:00: Soropotroak-Ari Ari • C. Bergara

PARE BAT OHAR

Aurreko astean kontrakoa adierazten bagenizuen ere, Uve Bikoitza taldeari ez dio zigorrik ezarri Antolaketa Batzordeak. Gaizki ulertu bat izan du Antolaketa Batzordeak eta barkamenak eskatu nahi dizkio Uve Bikoitzari. Bestalde, aste honetan argitaratzen dizuegun sailkapena Antolaketa Batzordeak emandakoa da. Hutsen bat ikusten baduzue, eman ezazue horren berri. Hilebeteko epea dago hutsak zuzentzeko.

EMAITZAK

1. MAILA

OZAETA-BAR CANALEJAS	3 - 8
OGIZUN-ARLOTEAK	0 - 3
MADURA INDUSTRIAS GOL-UFALA	7 - 3

2. MAILA

PAGOMENDI-AUTOBEREZI	4 - 3
----------------------------	-------

3. MAILA

AMOZKIBAR-SHAKTALE	3 - 4
MOSKIS-IGANDEKOAK	2 - 4
KIROLZALEAK-LA JUVE	7 - 2
CONSTRUCCIONES BERGARA-ARI ARI	5 - 3
SOROPOTROAK-NEKROFIKOS	9 - 2
EZINLEIKE-EH BITERRAK	4 - 2

4. MAILA

LABEGARAIETA-PATA NEGRA	12 - 1
MATXAKATEGI-XURRUPAK	5 - 2
TXIPIRON- PATXARAN TEAM	5 - 2
GUADALEST-OSINTXU	5 - 1
PJS-ALDOKA MALDOKA	6 - 1

TALDEAK



Pagomendi taldea Ander Gómez, Igor Agirrezabal, Iban Ugarte, Igor Idigoras, Ibai Elorza, Gorka Pagaldai, Unai Ugarte, Gorka Marzana eta Jose Angel Muñoz angiozartarrek osatzen dute. Angiozarko bigarren taldea da. Kalimotxo izenarekin hasi ziren txapelketan jokatzeko duela 5 urte eta duela 2 urte Pagomendi izena jarri zioten auzoko elkartearen izena hartuz. Elkartekoek ordaindu dizkiete kamisetak. Aurten bikain dabilta eta aukera handia dute datorren urtean lehen mailan jokatzeko.

T XINPARTAK

Eskalada ikastaroa

Eskalada ikastaroa antolatu du Udal Kirol Zerbitzuak martxoaren 19tik 28ra bitartean astearte eta ostegunetan arratsaldeko 7.30etatik gaueko 9etara. Ikastaroan 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute eta Labegarieta kiroldegiko rokodromoan egingo da. Informazio gehiago, Udal Kirol Zerbitzuan (77 91 67).

Tai-Chi klaseak

Tai-Chi klaseak hartu ahal izango dira Balentin Zurbanoren eskutik, Eskoriatzako Magisteritza Eskolan hil bakoitzeko bigarren zapatuetan arratsaldeko 4retatik 7etara. Klaseak bailara mailan antolatu dira eta informazio gehiago jasotzeko 71 41 91 telefonora deitu.

Pelota partiduak

Deba Arroko Pelota Txapelketako partiduak jokatu dira igandean Udal Pelotalekuan goizeko 11etatik aurrera. Bergara eta Oñati arituko dira lehian eta pelotariak, berriz honako hauek izango dira: Infantiletan, Muguruza Redondoren aurka eta jubeniletan, Martin Zabaletaren kontra. Muruamendiaraz izango da seniorretan bergararren aurrelaria. Atzelaria, ostegunean zehazteke zegoen.



Bergara Karate Elkarteko karateka gazteek lehen postua lortu zuten joan zen igandean Labegarietan.

Herriko karatekak Gipuzkoako onenak

Bergara Karate Elkarteko kirolariek emaitza bikainak lortu zituzten, 8 talderen artean lehen postuan bukatu baitzuten joan zen igandean Labegarieta krioldegian jokaturako Gipuzkoako liga txapelketaren barruan.

Guztira 36 karateka bergarar aritu ziren 8 urtetik 24 urtera bitartekoak. Gazteenek, gerriko zuria dutenek, entrenamendu teknikoa egin zuten eta borrokatu beharrean euren teknika baloratu zuten epaileek. Gerriko horidunek, aldiz, beste batzuen aurka borrokatu behar izan zuten, baina beti ere taldekideen aurka. Hortik gorako gerrikodunek beste elkarre batzuetako kideen aurka borrokatu behar izan zuten.

Miguel Galvan Bergara Karate elkarteko entrenatzaileak ontzat jo zituen

lortutako emaitzak. *"Pozik gaude lortutako emaitzekin, eta kanpotik etorritako klubetako kideek antolakuntza ona izan zela esan ziguten"*.

Beste bi jardunaldi Bergaran

Igandekoaz gain Bergaran Gipuzkoako ligako beste bi jardunaldi egingo dira. *"Jardunaldi baren bidez elkarteko kirolariek karatea egiteko aukera izatea da. Asteazkenean zehar entrenatzera etortzen dira eta asteburuan borrelako proba bat izateak kirola gogo handiagoaz hartzea eragiten du. Gainera Bergaran izanda errezagoa dute parte hartzea"* diosku Galvanek.

Sailkapenari begiratu, Gipuzkoako Ligaren lehenengo jardunaldia jokatu ondoren, Bergara dago lehen postuan 28

punturekin; Matiena eta Durangoko Nevers taldeak, bigarren, 19 punturekin bakoitza; Bilboko Zurbaranbarri 6 punturekin hirugarren postuan sailkatu zen; San Ignacio, laugarren postuan 3 punturekin eta azkena 0 punturekin Bilboko Shotokan izan zen.

Igandean, berriz, Bilbon jokatu den Euskadiko karate txapelketara Bergaratik 5 kirolari joango direla esan digu Galvanek. Gipuzkoako ligaren hurrengo jardunaldia apirilean jokatu da eta ekainean azkena.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Roteta**
Preferente maila.
Igandea, 16.45. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Ilintxa**
Lehen erregionala.
Larunbata, 17.15. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Arrasate**
Ohorezko mailako jubenilak.
Igandea, 11.30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Urola**
2. mailako kadeteak.
Igandea, 10.00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Dunboa**
Emakumezkoak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

- ◆ **Guk-Potzu T.Z.**
Igandea, 12.00.
Migel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.
- ◆ **Blue Star-Berdin Du**
Igandea, 16.00.
Migel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.
- ◆ **Almondigak-Push Team**
Igandea, 16.00.
Migel Altuna Institutua.
Bigarren kantxa.

ESKUBALOA

- ◆ **Bergara-Hondarribia**
Kadete mutilak.
Larunbata, 17.45.
- ◆ **Bergara-Leitzaran**
Senior mutilak (2. territoriala).
Igandea, 10.45.
- ◆ **Bergara-Egia**
Senior mutilak (2. nazionala).
Igandea, 12.30.
Hirurak kiroldegian.

SASKIBALOA

- ◆ **Ibili Bergara-Zarautz**
Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
- ◆ **Bergara-Alde Zaharra**
Junior neskak.
Larunbata, 12.15.
Biak kiroldegian.

Gorka Fernández

Piraguismoaz gozatzeko

Gorka Fernándezek 14 urte ditu eta duela bi urte inguru piraguismoa egiten hasi zen. Gaur egun horretan jarraitzen du eta Euskadiko Eslalon Txapelketan, kadete mailan, lehian izan da. Horrez gain, Beti Busti elkartearen dabil eta 1996ko kirolaririk onena aukeratu du taldekideek.

- Nola hasi zinen piraguismoan?

- Duela bi urte ikastolara paper batzuk bidali zizkiguten eta piraguismoan apuntatzea erabaki nuen. Hasieran igerilekuan entrenatzen ibili ginen, baina bi hilabetera edo, lehiaketetan hasi ginen.

- Bergaran ez dauka guzuzen itsasorik ezta ganozko errekarik ere, beraz, nola moldatzen zarete?

- Astean zehar igerilekuan entrenatzen dugu eta asteburuetan kanpora irtetzen dugu. Igerilekuetan teknika eta paladak nola eman lantzen ditugu gehienbat. Hori ez da oso zaila, zailena prezisioa lortzea da. Horretarako kanpoko igerilekuetan ate batzuk jartzen ditugu eta horien inguruan ibiltzen gara.

- Asteburuetan, nor irretzen duzue?

- Normalean Iparraldean Errobi errekararen joaten gara eta Bidasoan ere ibiltzen gara. Noizean behin, txango moduan, itsasora ere joaten gara olatuetan ibiltzera.

- Errekan ibiltzea

arriskutsua al da?

- Ez, gainera orain ur asko dagoenez hobeto ibiltzen da. Halere, zenbat eta ur gehiago eraman errekarak, orduan eta teknika hobea izan behar duzu.

- Zein da jeistea gehien gustatu zaizun erreka?

- Nogera Pallaresan (Lleida) izan naiz uda honetan eta oso ondo pasatu nuen. Erreka hori piraguisten artean Espainiako famatuenetakoa eta oso polita da. Datorren urtean

udaberri aldean joateko asmoa daukat, orduan darama-eta errekarak ur gehien.

- Nola aukeratu zenuen piraguismoa?

- Pelota edo baloia behar duten kirolak ez zaizkit gustatzen eta horregatik aukeratu dut piraguismoa.

- Deba ibaian ere ibiltzen zarete, ez?

- Bai, jendeak pentsatzen du zorrotza gaudela, baina ez da horrenbesterainokoa.



"Astean zehar igerilekuetan entrenatzen dugu"

"Pelota edo baloia behar duten kirolak ez zaizkit gustatzen"



Eskola Nazionaleko ikasleak

Aspaldi Epaitegian bertan eskola zegoen eta horren froga goiko argazkia duzue. Epaitegiko patioan ateratako argazkian 1975an OHOk laugarren mailan ari ziren ikasleak agertzen dira. Argazkia 1975eko otsailaren 27an atera zen eta beraz, asteartean, 21 urte bete zituen. Ikasle bihurri hauek 10 bat urte izango zituzten orduan eta bat baino gehiago ezaguna egingo zaizue, zenbait kasutan ez baita aldaketa aipagarririk izan. Horra hor beren izenak, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Iñaki Larrañaga, Martín Barcala, Jose Luis Unamuno, Patxi Arreseigor, Jesús García, Mikel Etxaniz, Manolo Tena, Marcos Iturriaga, Iñaki Sotil, Etxaniz, Alex Aranzabal eta Fernando Calvo.

Erdian: Fernando Sánchez, Ander Azkargorta, Juan Manuel Díaz, Catalán, Abio, Jose Ramón Epelde, Don Lucio De la Presa irakaslea, José Antonio Luque, Carretero, José Javier Rodríguez, Andrés Uribe eta Carlos Esain.

Jarrita: Carlos Imaz, Gurutz Olañeta, Javier Azkarate, Iñigo Beain, Iosu Etxabe, Alberto Moncayola, Aitor Jaurregi, "Peito" Castelo, Enrique Urriolabeitia, José Antonio Santorcuato, Fran Iturbe, Alex Garitano eta Nestor Etxarri.

Argazkia: Alberto Moncayola

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behe

☎ 76 23 48



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

Amaitia Lurrindegia


Usaindegia eta oparigaiak

**GIZON ETA
EMAKUMEZKOENTZAKO
EDERGINTZA**

**URIK GABEKO betirako depilazioa
TERMOSLIM METODOA**

*Aurpegiaren tratamendua (goiko ezpaina,
okotza, patilak), bularra, bizkarra, besoak,
bernak, izterondoak, besapeak eta
sabelaldea.*

Barrenkale, 25 ☎ 76 16 97



ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



*Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak*



RKUZ



altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala



FAGOR 

Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 9



Aretxabaleta